



DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN 2016
EUROPAKO KULTUR HIRIBURUA
CAPITAL EUROPEA DE LA CULTURA
DSS2016.EU



DSSIREZ
MUGIMENDU EROTIKOA | MOVIMIENTO ERÓTICO

MEMORIA

BIZITZA
VIDA



MEMORIA

DSSirez Mugimendu Erotikoa


PROIEKTUAREN MEMORIA

Erotika bizitzeko modua kulturak baldintzatzen duela oinarri hartuta, eta kulturaren barruan existitzen den aniztasuna aldarrikatuz, bost zentzumenekin goatzera gonbidatzen gaitu DSSirez Mugimendu Erotikoak.

Desio sexualak, erotikoak eta maitatzeko modu anitzak dira egitasmo honen ardatz nagusiak; eta estereotipo sexualak neutralizatzea du xede, inposatutako ereduarekin apurtzeko.

Auzoz auzo Donostiarrengana hurbildu da Dssioen Putzu Ibiltaria, aniztasuna sustatzen duten aktibitateak burutu eta hiritarren egunerokotasunean txertatzeko.





MEMORIA

AKTIBITATEAK

ZURRUMORBO AGENTEEN FORMAKUNTZA

Zurrumorbo agenteen formakuntzaren helburua, komunitatea bera, Donostiako auzoetako bizilagunak hain zuzen, aldaketaren agente nagusiak bihurtzea da. Formakuntza egin dutenei egunerokotasunean eragiteko baliabideak eskaini zaizkie, eta informazioa eta tresnak jarrera erotofilikoak bultzatzeko, aniztasun sexuala ikusgarazteko, sexualitatearen inguruko estereotipoak indargabetzeko eta zurrumurru faltsuei aurre egiteko.

Aktibitate hau ezagutzera emateko lana sare sozialen bidez (facebook) eta udal erroldako erakunde eta elkarteei mailing bidez egin da.


Parte-hartzaileak lortzeko oztopo nagusia, formazioaren formatuagatik, parte hartu nahi zuen jende askoren ordutegi disponibilitate falta izan da. Gainera, lehenengo formakuntza 5 egunetan zehar banatutako saioetan egin da eta parte hartzaile batzuk ezin izan dute saio guztietara etorri, horregatik, bigarren belaunaldi bati saio trinkoa eskaini zaio.

Ekainaren 13, 14, 15, 16 eta 17an lehenengo ZuruMorbo aGenteen formakuntza egin zen DSS2016 Fundazioaren egoitzan. 15-24, 25-39 eta 40-64 urte bitarteko 10 pertsonak hartu zuten parte (%50 emakumezkoak eta %50 gizonezkoak). Urriaren 6an, bigarren belaunaldi batentzat formakuntza trinkoa eman zen Loiolako Kultur Etxean, parte hartzaileak 25-39 eta 40-64 urte bitarteko 4 pertsona izan ziren (%25 emakumezkoak eta %75 gizonezkoak).

DSSIOAK ETA SAN JOAN DSSIOAK

Karabana dssioen putzua den heinean, Donostiarren **DSSioak** DSSirez proiektuaren parte garrantzitsua dira. Putzuaren helburua hiritarren sexu-desiren aniztasuna eta sentsualitatea desestaltzea da, eta xehetasun eta nabardurei lekua ematea. Dssioak jasotzeko, proiektuan zehar burutu diren aktibitate guztietan dssioen kutxak egon dira eta txartelak banatu dira. ZuruMorbo agenteen formakuntzan eta sedukzio tailerretan parte hartzaileek ere haien dssioak eskatu ahal izan dituzte. ZuruMargo Txikietan, hurrekin etorri diren helduak ere parte-hartzera adoretu ditugu, eta gonbita bera egin zaie Ligodromoan eta Bokata Erotikoa prestatu den tabernetan ere. Nahiz eta dssioak modu anonimoan jaso diren, oztopo nagusi bat izan da jendeak haien gurari edo grinak adierazi nahi ez izatea; bestea, momentuan zer idatzi ez bururatzea izan da. Guztira 350 dssio inguru jaso dira.

Bestalde, **San Joango Dssioen** helburua, San Joan gauean Donostiako auzoetan zehar antolatutako suen inguruan hiritarrek haien desio erotikoa eskatzea da. Ekintza hau burutu ahal izateko, auzo bakoitzeko festa batzorde eta bizilagun elkarteekin kontaktatu da, aktibitatearen berri eman eta baimena eskatzeko. Oztoporik garrantzitsuenak izan dira: batetik, elkarteetako antolatzaileak oso lanpetuta egonik, gure eskaera atenditzeko denborarik ez zutela; eta bestetik, hainbat elkarte agertu diguten jarrera erabat ezkorra DSS2016 fundazioarekiko eta 2016 proiektu osoarekiko. San Joango Dssioak Aieteko Jolastokian burutu zen, 41 dssio jaso ziren eta parte hartzaileak 25-39 eta 40-64 urte bitarteko %50 emakumezko eta %50 gizonezko izan ziren.



MEMORIA

HONDARTZAKO ESKULTURAK

Ura eta Hondarrarekin Intimitatean, nerabeei zuzendutako tailerra da. Andoni Bastarrika hondar eskultorearen laguntzaz ura eta hondarra norbere burua eta intimitatearen forma anitzen arteko elkarriketari ekiteko helburuarekin. Jarduera honetan zentzumenen bitartez, Donostiako hondarra eta ura gazteen autoezagutzarako bide berria da.

Aktibitate hau ezagutzera emateko, bigarren hezkuntzako eskolen artean mailinga egin da eta baita sare sozial eta kartelen bidezko difusioa ere. Ekintza aurrera atera ahal izateko zailtasunik nabarmenena eguraldia izan da, lehenengo deialdia (irailak 13) bertan behera utzi zen alertagatik; eta bigarren deialdira, irailak 22an, ez zen inor azaldu. Hala ere, Zurriolako pasealekuan karabana egon zen eta Zurrumorbo Irratiaren bitartez, gerturatu zen jendea elkarriketatzeaz gain, proiektuaren berri eman zitzaion.

ZURRUMARGO TXIKIAK

Zurrumargo Txikiak haurrei zuzendutako tailerra da, zeinetan umeek haien ikuspegitik bikote, familia, maitasun eta plazeren dibertsitatea adierazten duten. Estereotipoak eta dibertsitatea lantzen dira, kontakizun eta jokoen bitartez, gero marrazki koloredunetan irudikatzen.


Aktibitate hau ezagutzera emateko, auzo bakoitzeko ikastetxe, guraso elkarte eta elkarteei mailing bidez gonbidapena luzatu zaie. Facebook bitartez hedapen-lana egin da eta baita auzo bakoitzean jarritako kartelen bidez. Gainera, karabana auzoetan zehar ibili da megafonia bidez aktibitatearen berri emanez.

Aktibitatea auzoetako plazetan egiteko baimenak eskatu dira; badaezpada ere, eguraldi txarra eginez gero, auzoetako kultur etxeetan areto eskaerak egin dira, baita haurtxoko eta frontoietan ere (Igeldoko frontoia, Egia Kultur Etxea, Zubietako frontoia, Aieteko Topalekua, Loiola Kutur Etxea, Bidebietako Haurtxokoa, Intxaurren Kultur Etxea, Casares-Tomasene Kultur Etxea, Lautximeneta frontoia). Kultur etxe eta haurtxokoei difusioa egiten lagundu dute.

Oztoporik nabarmenena, nahiz eta aktibitatearen berri eman, haur eta guraso batzuek haien egunerokotasunean txertatzeko zailtasuna izan da, lana eta eskolaz kanpoko aktibitateak direla eta. Zenbait auzotan, aukeratutako lokalizazioan ez zeuden familia asko, beraz, inguruko parkeetara urbidu eta aktibitatearen berri eman da, parte hartzera animatuz.

Tailer hauetan hainbat ekimen gauzatu dira: amodio eta sexuaren jatorriari buruzko ipuin kontaketa, bikote harremani buruzko marrazkiak, amodioaren irudikapenak dituzten txapak sortzea; eta guraso eta haurrei elkarriketak egin zaizkie bikote, sexualitate, sexu hezkuntza eta plazerari buruz. Zurrumorbo Irratia eta musikaren bidez aktibitatea girotu da, karabanaren barruan sexu hezkuntzari buruzko liburutegi txiki bat egon da kontsultarako, eta nahi izan dutenentzat, aholkularitza jasotzeko aukera ere egon da. Hortaz gain, gurasoek dssioak eskatzeko aukera ere izan dute.

Zurrumargo Txikiak tailerrak Donostiako hainbat auzoetan burutu da. Igeldon froga pilotua egin zen, ekainaren 22an, 3-12 urte bitarteko 22 haurrek parte hartu zutelarik, %50 neska eta %50 mutil. Irailaren 21ean Egia auzoko Hirutxulo plazan burutu zen tailerra; 25 haurrek parte hartu zuten, %50 neska eta %50 mutil. Irailaren 27an Zubietako frontoian, 3-12 urte bitarteko 15 haurren parte hartzea izan zen, 3-12 bitarteko %50 neska eta %50 mutil. Irailaren 28an Aieteko Topalekuko lorategian, 3-12 urte bitarteko 10 haurrek hartu zuten parte, %50 neska eta %50 mutil. Urriak 5ean, Loiolako Latxari Plazan 20 haurren parte hartzea egon zen, 3-12 urte bitarteko %40 neska eta %60 mutil. Urriak 19an Bidebietako Nornahi Plazan 23 haur etorri ziren, 3-12 urte bitarteko %60 neska eta %40 mutil. Urriaren 26ean, Intxaurrendoko Kultur Etxe kanpoan, Felix



MEMORIA

Gabilondo plazan, 27 haur gerturatu ziren parte hartzera, 3-12 urte bitarteko %40 neska eta %60 mutil. Azaroaren 2an, Altzako Casares Kultur Etxe kanpoan, 3-12 urte bitarteko 35 haurrek parte hartu zuten tailerrean, %50 mutil eta %50 neska. Azaroak 16an, Ibaetako Lautximeneta frontoira 3-12 urte bitarteko 25 lagun gerturatu ziren, %50 neska eta %50 mutil.

FLEUR PLAY/EROTIK LAB

Fleur Play / Erotik Lab helduei zuzendutako sedukzio tailerrak dira; ibilbide luzeko bikote, alargun, single, ezkongabe, dibortziatu edota bananduentzat. Harremani ekiteko pistak eta sedukziorako teknika sinpleak baina eraginkorrak ikasten dituzte, seguruago sentitzeko. Gainera, tailerretan zehar, ligatze jatorraren dekalogoia osatu da.

Sedukzio tailerrak ezagutzera emateko, auzoetako elkarteei zuzendutako mailinga egin da; kartelak, facebook eta kultur etxeetako agendaren bidez difusioa egin da, eta Zurrumargo Txikietan gurasoei gonbidapena luzatu zaie, baita ere. Gainera, karabana auzoetan zehar ibili da megafonia bidez aktibitatearen berri emanez eta karabana informazio puntu bezala erabiliz, ingurutik zebilen jendeari gonbidapena luzatu zaio.


Tailerretan zehar, parte hartzaileek harremanak abiatzeko eta haietan sakontzeko dituzten beldurrak eta mugak aztertu dira; baita gizarteak inposatutako eredu eta arauak sortzen dituzten frustrazioak ere. Aniztasuna eta norberaren ezaugarrien garrantzia azpimarratu da, seduzitzeko bakoitzak bere tresna propioak erabiltzera animatuz. Horrez gain, ligatze jatorraren dekalogoia osatuz joan da saio bakoitzean ateratako ondorioekin.

Tailerrak burutzeko, auzo bakoitzeko kultur etxean areto bat eskatu da. Irailak 22an Groseko Okendo Kultur Etxean egin zen tailerra, 25-39 eta 40-64 urte bitarteko 20 pertsonak parte hartu zuten (%60 emakumezko eta %40 gizonezko). Irailak 29an Amarako Ernest Lluch Kultur Etxean, 25-39 eta 40-64 urte bitarteko 6 pertsonak hartu zuten parte (%33 emakumezko eta %66 gizonezko). Urriak 6an Loiolako Kultur Etxean 25-39 eta 40-64 urte bitarteko 14 parte hartzaile etorri ziren (%60 emakumezko eta %40 gizonezko). Urriak 27an Intxaurren Kultur Etxean, 25-39 eta 40-64 urte bitarteko 6 pertsonak hartu zuten parte (%50 emakumezko eta %50 gizonezko). Azaroak 15ean Antiguako Lugaritz Kultur Etxean 25-39 eta 40-64 urte bitarteko 14 pertsona etorri ziren tailerrera (%60 emakumezko eta %40 gizonezko)

Urriak 20ean Bidebietako auzoan sedukzio tailerra Kontadoresen egiteko deialdia egin zen, baina bi pertsona soilik gerturatu zirenez, ez zen tailerra burutu. Azaroak 3an, Altzako Casares-Tomasene Kultur Etxean tailerra egiteko deialdia egin zen, baina bi pertsona soilik etorri ziren eta ez zen tailerra burutu. Hala ere, bi kasu hauetan, etorri ziren pertsonak jaso eta arreta eman zitzaizkien; proiektuaren berri eman eta beste auzoetako tailerretara etortzeko gonbidapena luzatu zitzaizkien. Bidebietako kasuan, Kontadores zentroan gazteei zuzendutako aktibitateak antolatu ohi dira; gure xedea jende helduagoa denez (30-50 urte bitartekoak), zailagoa izan da deialdia haiei helaraztea. Altzako kasuan, Kultur Etxeak ez du aktibitatearen difusioa egin; horrek oztopatu egin du auzokideek aktibitatearen berri izatea.

BOKATA EROTIKOAK

Bokata Erotikoak, zentzumenen plazera pizteko eta konpainia onean disfrutatzen oinarritutako ogitartekoak dira. Ogitarteko berezi hauen helburua, zapora berriak dastatu, osagaien ehundurekin esperimintatu, usain berriak identifikatu eta kolore eta estetikaz disfrutatzea da, gure bizitzako esparru guztietan gozatzera animatuz, gorputzak eta zentzumenak erabiliz.



MEMORIA

Aktibitate hau burutzeko, auzo guztietako hainbat tabernari proposamena luzatu zaie, auzoan karabana dagoen aste horretan, egun bat aukeratu eta bezeroei bokata erotikoa eskaintzera animatuz.

Parte hartzeko prest dauden tabernak lortzea zaila izan den arren, auzo guztietan burutu da aktibitatea. Bestalde, ekintza honek arrakasta gehiago izan dezan, testuingurua lantzea beharrezkoa dela ikusi da: jolas edo festa giroan hobeto funtzionatuko luke. Antiguako bokata erotikoa kasuan, Ligodromoaren programazioaren parte zenez, parte hartzea oso handia izan da. Bestalde, Egiako auzoan Hegoalde tabernarekin adostu zen bokata erotikoa, baina jabearen osasun arazoak zirela eta, asteburu horretan taberna itxi behar izan zuten.

Bokatak prestatu dituzten tabernei, sarreran jartzeko roll-up bat eta kartel bat luzatu zaie, baita dssioak eskatzeko kutxa eta txartelak, bokatak biltzeko zorro bereziak eta bezeroek bokata puntuatzeko orriak ere. Bokataren prezioa, eguna eta ordua tabernariak erabaki dute. Aktibitatearen berri emateko, kartelak eta megafonia izan dira erabili den difusio metodo nagusia; horrez gain, facebook eta email bidezko gonbidapenetan bokata dastatzeko deia zabaldu da.

Irailak 30ean, Amarako Iruña tabernak 10 bokata saldu zituen. Urriak 7an Loiolako Apitxin tabernak bokata 1 saldu zuen. Urriak 22an Bidebietako Tikei tabernan 2 bokata saldu zituzten. Urriak 29an Intxaurrendoko Izei Tabernak 6 bokata saldu zituen. Azaroak 5ean, Altzako La Terraza tabernak 10 bokata saldu zituen. Azaroak 18an Antiguako Pepe Tabernan 100 bokata saldu ziren.

ADIERAZPEN HIRITARRAK

Hiritarrek, erotismo, amodio, afektibitate, lotura, sexualitate eta haragikoitasunaren aniztasunari buruz duten ikuspegia partekatzea da adierazpen hiritarren helburua. Adierazpen guztiak anonimoak dira, autoreen intimitatea babesteko eta modu aske batean adieraz daitezen.

Adierazpenak Zurrumargo Txikiak eta Fleur Play tailerretan eman dira ezagutzera, eta webgunearen bidez ere parte hartzera animatu nahi izan da. Hala ere, jendea ez da honetara jarri, arreta eta elaborazio maila handiagoa eskatzen baitzuen. Argi geratu da, beste testuinguru bat eman behar zaiola, jendeak ahalegina egin nahi izateko. Esaterako, tailerretako dinamika konkretu bat bezala planteatuz, adierazpenak jasotzen jarraitzeko irtenbide polita izan daiteke.

Kartografia erotikoa


Donostiako txoko erotikoak berreraiki eta hiriak berak, auzoz auzo eskaintzen dituen espazio bitxiak azalera da helburua. Webgunearen bitartez, hiritarrek haien txoko erotikoa maitatuena mapa batean marraztu eta irudikatu dezakete.

Mezu Graffiteroak

Helburua norberaren aldiririk bihurriena azalera da eta kontainerretan ikustea gustatuko litzaigukeen graffiti-esaldiak idaztea da. Esaldien edukiak estereotipo sexual edo jarrera erotofobiko batekiko errefusa adierazten du.

Lorategi Mezuak

Zona berdeak kartel debekatzailez beteta daude. Donostiako lorategietan ikustea gustatuko litzaigukeen mezuak idaztera gonbidatu da jendea, jarrera erotofilikoak bultzatzeko asmoz idatzitako mezuak hain zuzen ere.



MEMORIA

Fleur Play (Piropo ez sexistak)

Adierazpen forma honen helburua, piropoak eraldatu eta berdintasunezko gizarte batetara egokitzea da. Testuinguru parekideetan, erabilera berriak eman, sedukzioan duten funtzioa mantendu eta loturak indartzeko. Hau da, lekuz kanpo dauden piropoak baztertzea, eta piropo pertsonalizatu, ez sexista eta atseginez ordezkatzeta.

LIGODROMOA

Azaroaren 18an Antigua auzoko Doka Antzokian proiektuari amaiera emateko festa ospatu da. Aktibitate hau Zurrumargo Txikiak eta Fleur Play tailerretan eman da ezagutzera, baita, megafonia eta kartelen bitartez. Gainera, antolakuntzan eta festaren dinamizazioan parte hartu duten hainbat kidek facebooken zintzilikatu diren bideoak grabatu dituzte. Festaren egunean, karabanak Donostiatik ibilbidea egin du, megafonia bitartez programatutako aktibitateak azalduz.

Helduei zuzendutako festa honetara jendea bikotekideaz, lagunekin edota bakarka etortzera animatu da. Aipagarriena festan sortutako giro ona eta parte hartzea izan da. 300 pertsona inguru etorri dira eta gainera, parte hartzaileen adin tarteak gure helburuarekin bat egin du, 25-39 eta 40-64 urte bitarteko %50 gizon eta %50 emakume. Sarreran Ligatze Jatorraren Dekalogoia jaso dute, festaren oinarri gisa, giro ona bermatzeko. Jendeak gogotsu hartu du parte proposatutako aktibitate guztietan eta gau osoan zehar giro ezin hobea egon da, jendeak errespetuz jokatu du eta gozatzea eta harremanak egitera etorri da.

Gauean zehar hainbat aktibitate burutu dira. Zailtasun handiena proposatutako ordutegiaren betetzea izan da, festa ordu erdi beranduago hasi zen eta aktibitate guztiak pixka bat atzeratu dira. Rallie-poteo eta bokata erotikora 100 pertsona apuntatu dira eta talde handi bat dinamizatzea ez da erraza izan, horregatik, rallie-poteorako prestatuta zeuden hainbat froga ezin izan dira burutu. Hala ere, jendeak pazientzia asko eduki du. Bokatak eskatzeko, Pepe tabernako jabearekin telefono bidezko koordinazioa egon da arratsalde guztian zehar eta parte hartzaileek bokata eskuratzeko eta ordaintzeko emandako indikazioak errespetatu ditu. Dokara bueltatzean, bertan proposatutako ekintzak oso ondo funtzionatu dute.


Ligatze jatorraren dekalogoaren aurkezpena. DSSirez-eko karabanak Donostiako auzoetan zehar egin duen ibilbidean eta Fleur Play tailerretan, sedukzioarako klabeak emateaz gain, ligatzea aktibitate dibertigarria bilakatzeko hiritarren proposamenak jaso dira. Ideia hauen bilduma, Dekalogoan laburbilduta azaltzen da eta bildutakoaren aurkezpenak hasiera eman dio festari. Aurkezpena Ainara de Miguel eta Flavio Banterla Zurrumorbo aGenteek egin dute.

Espedizio sexologikoa. AEPS-ek (Estatuko Sexologiako Profesionalen Elkargoa) Olarain Ostatuan ospatu dituen "Sexologia eta Kultura XXI. mendean" Jardunaldietara joan diren pertsonak, Ligodromoko antolatzaileez lagunduta Dokara bidea egin dute.

Rallie-poteo erotikoa eta Bokata erotikoa. Talde poteoa egin da, Pepe Tabernara bidean. Helmugara iritsita Bokata Erotikoa jan ahal izan da.

Erolab espazio intimoa eskaini da pertsonen arteko esperimenduak burutzeko, hobeto elkar ezagutu dezaten: muxuak, besarkadak, begiradak... trukatzeta euren esku!

Senso-txoko, dastamena, ukimena, entzumena eta usaimena izan dira protagonistak. Parte-hartzaileak, begiak estalita eta itsu-gidari batez lagunduta, ibilbide sensorialean murgildu dira elementu anitzen estimulazioaren bitartez.



MEMORIA

Ero trivial, Trivial klasikoaren antzeko galdera eta erantzunen jokia da. Partehartzaileek lau multzotan sailkatutako galderei erantzuna eman behar diote. Ero Trivial eta joko klasikoaren arteko ezberdintasuna, galderak sexualitatea eta erotikaren ingurukoak direla da.

Ero avatareak, pertsona bakoitzari *avatar* edo pertsonai bat eman zaio eta bakoitzari espazio-kutxatila bat dagokio eta bertan Ligodromoan dagoen edozeinen mezua jaso dezake. Behin *avatarea* aktibatuta, parte-hartzaile bakoitzak txat analogikora sarbidea dauka, mezu idatziak utzi ahal izateko eta ekintza anitzetan elkarrekin parte hartzeko proposamenak egiteko.

Photocall pikantea, pose iradokitzaileak egitera inspiratzen duen espazio dekoratua, argazki saio bat egiteko helburuarekin, bakarka, taldeka edota bikotean. *Photocall*-ean atrezzo eta osagarriak egon dira erretratu hauek elikatzeko, hala nola, boak, esposak, txapelak, lupak, betaurrekoak, maskarak...

Dssioen putzua, dssioak adierazteko txartelak eskaini dira, ondoren Dssioen kutxan sartu ahal izateko.

Sexijentziak askatuz monologoa. *Bazen Behin Clown*-ak (Itziar Saenz de Ojer), giroa erlaxatzeko asmoz, sexualitatea eta erotikaren inguruko auto-exijentziak iragarri utzi dituen bakarrizketa burutu du.

DJ Umea gauari itxiera emateko ekitaldiarekin bat datorren musika hautatzeaz arduratu da.

ONDORIOAK

DSSirez proiektuaren ezaugarriak ezagututa eta egin duen ibilbidea ikusita, pozik gaude emaitzekin.

DSSirez-en baitan sustatu diren jardueretan, sexologian lan egiten duten profesionalek bere egunerokotasunean egin ohi dituzten proposamenak burutu dira, formatu berritzaile eta esperimentera: Donostiako auzoetako kaleetan zehar, alegia. Hau izan da berrikuntza nagusia. Eta horrekin lotuta dator zailtasuna ere: jendea ez dago ohituta sexu-aholkularitza eta sexuen hezkuntza bila joaten, ez eta espazio publikoan sexualitate edo desiren gaiak modu esplizituan jorratzen ere. Horregatik, lantaldeak jendearengana iristeko moduak sortu, garatu, esperimendu eta egokitu behar izan ditu. Eta erakundeak eta iritzi publikoa erakartzeko modua bilatu.

Egia da zailtasun asko gainditu behar izan ditugula, batzuk DSS2016 egituraren baitakoak, besteak esperimenduzkoak dakarren ezezagutzatik eratorriak. Horiei guztiei modu eraginkorrean erantzuteko gai izan gara, eta emaitzak agerian daude. DSSirez proiektu aitzindaria izan da, dibertigarria, ausarta eta beharrezkoa. Aurrerantzean ildo beretik jarraitzeko ere oinarri polita utzi du gainera: eskarmentu handiko eta ondo trebatutako lan-taldea, lankidetzeta giro aparta, testatutako jarduera sorta erakargarria, erronken eta haiei aurre egiteko beharrezko tresnen eta dinamiken ezagutza... Horregatik, burututako hainbat jarduera berreskuratu, berregin edo birplanteatu nahi ditugu, berezko balioa dutelako, aukera berriak merezi dituztelako, eta jendarteak DSSirez gehiago merezi duelako. Legatu planean zehaztu ditugu aurrera begira ditugun asmoak.

Eskerrik asko parte-hartzaile eta laguntzaile guztiei!



MEMORIA

LANTALDEA

NEREA SANCHO. Zuzendaria eta Koordinatzailea.

IBAI FRESNEDO. Aktibitateen koordinatzailea.

MAIDER JERICÓ. Produkzio arduraduna.

EDURNE MENDIZABAL. Proiektuaren kudeatzailea, Arremanitz Kooperatiba.

ASIER BAGLIETTO. Proiektuaren kudeatzailea, Arremanitz Kooperatiba.

IBON ARRIZABALAGA. Dokumentazio ofizialaren arduraduna, Arremanitz Kooperatiba.

MIRARI LEGARRETA. Administraria, Arremanitz Kooperatiba.

ITZIAR ELIZONDO. Komunikazio arduraduna.

JULIETA ALVARADO. Arte zuzendaria.

PAOLA USHER. Webmasterra.

JULEN ARREGI. Txoferra.

ANE MAKEDA. Dokumentazio laguntzailea.

IZARO AUZMENDI. ZurruMargo Txikien dinamizatzailea.

ESCUELA CENTA. Kamerak.

EMAIZE SEXOLOGIA ZENTROA. Fleur Play/Erotik Lab eta Ligodromoaren dinamizatzaileak.